

San Fermiaren 91: gutxiago falta da

Barraken inguruko adierazpenek ez dute konponbide erraza iragartzen

A.B. / IRUÑA

Sanfermin festetako barraken inguruan azken egunotan egin diren adierazpenek ez dute konponbide errazik iragartzen, eta jaietako txupinazorako astebete eskaxa falta denean, alderdi desberdinetako jarrerak bere horretan dira. Alfredo Jaime Iruñeko alkateak egin dituen azalpenek ere haserre bizia sortu dute alderdi eta herri erakundeetan, aukera bakarra utzi bait dute arazoaren aurrean: Basotxoan, edo barrakarik ez.

Antoniuti parkea, orain arte ohizko leku izan dena, gaitzetsi egin zuen udalak bere erabakian, eta Basotxo kalean paratzea proposatu zuen. Erabaki honek, hala ere, erantzun zabalagoa jaso zuen alderdi eta erakundeen partetik, hogeitalau barrakarentzako lekuri ez zegoelakoan. Alfredo Jaimek, ordea, garbi utzi du ez duela bere erabakia aldatuko. «Basotxoan ez badute nahi, ez da barrakarik izango. Indarrez paratu nahi badituzte, indarrez erantzun zaitzaie», adierazi du Iruñeko alkateak. Ohizko lekua baztertzeko Jaimek erabili duen argudio nagusia, trafikoa erantzako dakarren kaltea izan da.

Barraken ordezkariak, hala ere, nahiko garbi utzi dute bertan leku soberarik izan ezean ez dutela



Alfredo Jaime.

lekuz aldatuko, eta edozein momentuan elkarrizketarako prest azaldu ziren atzo, «baina gerra nahi badu, gerra izanen da», aitortu zuten. Bihar egingo duten bilerarako utzi dute, nolahi ere, azken erabakia, eta arazoa konpontzen ez bada, datorren asteazkenean manifestazioa egingo dutela iragarri dute barraken ordezkariak. Sanfermin jaiak gainera ditugu dagoeneko eta dena prest dago, beraz, eta haize bilduak giroan.

Atzo hasi ziren, egun batez, Iruñeko aurtengo Sanferminak

Peñen Egunak giro apartaz jantzi zituen Alde Zaharreko kaleak

Erraldoiak, kilikiak, zaldikoak, entzierro txikiak, gaiteroa, peñak... Giroak Sanferminak zirela pentsarazten zuen, eta baten batek ustekabe galanta harrapatu zuen, oraindik prest ez zegoela eta. Hala ere, iragarpena baino ez zen izan atzokoa: Peñen Eguna, hain zuzen ere. Gorputza ohitzen hasteko...

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Aurreko ohitura puskatuz, kalera atera zuten antolatzaileek aurtengo Peñen Eguna, eta Zezen Plazan izan ordez, Alde Zaharra osoa musika eta giro apartekoaz bete zen, Sanferminako giroaz, hain zuzen ere. 70 gigante eta 30 kiliki, beren botxintxak eta guzti, Jarauta kalean bildu ziren eguna hasteko, eta eguerdian hasi ziren dantzaka eta saltoka, gaitero, txistulari, zankulari eta jendilaje desberdinek lagunduta. Udaletxe aurrean jendetza zuten zain, eta hortik, ilara bikainaz, Gazteluko Plazara abiatu ziren. Ondoren, Sarasate pasealekuan, borobil batean bilduta, Euskal Herri osotik etorritako konpartsek nork bere dantza egin eta gero, denok batera aritu ziren.

Eta atzoko egunean giganteak protagonistak izan baziren ere, ezin ahaztu udaletxeak berak sortu zuen ikusmina. Izan ere, Nafarroako Museoak erakusketa bakar batean ere ez bait du oraingoz bildu atzo etxe ho-



Jai giroa pil-pilean dago Iruñean.

JOXE

nek izan zuen adina miresle. Eguraldi bikainaz profitatuz, udaletxe plaza Iruñeko atzoko topagune izan ginen, eta kanpoko museo bat bezala hartu zuten askok.

Eguna, Peñek antolatua eta 5 milioi pezetako aurrekontua izan zuena, goizeko 8,30etan hasi zen, gaitero eta txistularien dianekin, Alde Zaharreko karriketan. 10etan, txokolatada izan zen Gazteluko plazan, airez puztutako gazteluez inguratuta, eta 10,30etan entzierro txikia, kartoizko zezenekin ondorengo ibilbidean berrina: Chapitela, Estafeta, Gazteluko plaza, eta Espoz y Mina kaleak. Entzierro garbi garbia izan zen, inolako arazorik gabe.

Arratsaldean, jota jaialdia izan zen, eta 6etan, herri kirola, Mikel Saralegi harrijasotzailea, gurdi altxaketa, eta lasto jaurtiketarekin. Arratsaldeko 8etan, Alde Zaharreko Bigarren Txirindulari Itzulia korritu zen, eta antzerki eta su artifizialen ondoren, kontzertua izan zen San Frantzisko plazan. Hamaitakoa ederra festak prestatzeko.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Rosalía De la Puerta Cadenas, 80 urte.

Valera Ibañez Serrano.

Mariano Fernandez Madron, 72 urte.

Jose Luis Eguzkizaga Aburto, 62 urte.

Maria Arazeli Gallego Gonzalez.

BARAKALDO

Manuel Pazo Ruiz, 80 urte.

BERMEO

Dominga Urizarri Irarremendi, 87 urte.

DURANGO

Domingo Unamunzaga Arizaga, 71 urte.

ERANDIO

Carlos Espinosa Jimenez, 23 urte.

KARRANTZA

Jose Iraola Bringas, 88 urte.

LA ARBOLEDA

Jose Antonio Velasco Urretxa, 28 urte.

MUNGIA

Yolanda Lauzurika Menendez, 38 urte.

TRAPAGARAN

Tomasa Nuñez Eskurza, 89 urte.

GIPUZKOA

AIA

Jose Angel Manterola Larrañaga, 16 urte.

EIBAR

Rufina Elorza Alberdi, 87 urte.

IRUN

Julio Cabezas Centeno, 33 urte.

Juan Pedro Susperregi Etxebeste.

OIARTZUN

Maria Arozena Urdanpilleta, 81 urte.

URRETUXU

Maria Teresa Mujika Tolosa, 58 urte.

ARABA

GASTEIZ

Felix Otxoa Rodriguez, 87 urte.

Mercedes Rodriguez Martinez, 93 urte.

NAFARROA

IRUÑA

Carlos Almenara Royo, 71 urte.

Juana Gaztelu Gaztelu.

Brigida Mañu Turrillas, 82 urte.

Joaquina Mugerza Etxarri, 87 urte.

Maria Calvera Calvera, 81 urte.

BARASOAIN

Diacono Zubikoa Mañu, 93 urte.

DONAMARIA

Pedro Goñi Amigorena, 82 urte.

NOAIN

Miguel Turrillas Arizkuren, 65 urte.

OBANOS

Concha Ardanaz Santesteban, 65 urte.

OLAZTI

Maria Usatorre Astigarraga, 91 urte.

SAN ADRIAN

Antolin Baigorri Uguet, 82 urte.

SAN MARTIN UNX

Juanita Lantxetas Lekunberri, 75 urte.

LAPURDI

ANGELU

Roger Campo-Paysa, 78 urte.

HAZPARNE

Jeanne Diratxet, 97 urte.

HENDAIA

Jean Larzabal, 65 urte.

MIARRITZU


Jose Aseginolaza, 83 urte.

NAFARROA

BEHEREA

SUHUSKUNE

Louis Tafarnaberi, 89 urte.



TRINIDAD ASTIGARRAGA BILBAO

(Bilboko AEKko kidea den Maribel Zamakolaren ama)

Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan

BIZKAIKO AEK



TRINIDAD ASTIGARRAGA BILBAO

(Bilboko AEKko kidea den Maribel Zamakolaren ama)

Gure basoko zuhaitz lehorrek oraindik irauten dute lurraren babesak emango die itxaropenezko bizitza

BILBOKO AEK

ESKELAK HARTZEN DIRA

ARRATSALDEKO

4ak ARTE

(943) 45 59 57

ETA 4etatik 7etara

(943) 37 15 45